

laguntzaileak. Euskaltzale berri abek beren batzañaldiak izango dituzte noski eta abetarako Euskaltzaindiak bere izen-ordekotzat Aita Intza izendatu du.

Ta beste gairik izan ez da batzañaldia otoitzez amaitu da.

Bilbon Euskaltzaindiaren etxean, 1933'ko Urriaren 19'an.

Batzañean euskaltzain abek daude: Azkue, maipuru; Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea eta Oleaga.

Otoitz egin da.

1.^a Aita Intzak esan digu: *Euskaltzaindiaren laguntzaileak* joan dan Agoñean Donostian bildu zirala ta bera izan zala maipuru batzañaldi oietan. Batzañaldi auetako erabakiak Euskaltzaindiaren onespenean ipintzen ditu, au agindu bai - zioten batzarkideak. Euskaltzaindiak ontzat artzen du menpealdi au, bañan erabakitzat dauka, Euskaltzaindiaren laguntzaileak azkatasun geiagoz ibili bear dutela: badakizki Euskaltzaindiak laguntzaile oien ardura ta gogoa euskeraren alde ta auxe naiko zaio, erabaki ta lanak bere onespenera ekañi gabe.

Laguntzaile oiek darabilkiten beste asmotaz itz egin da: Ìleroko aldizki bat nai luteke ta bertantxe argitaratzeko dabiltz noski. Gañera sorospide bat Euskaltzaindiarengandik nai dute. Euskaltzaindiak orain arterañooko eskari guziak beteko ditu.

Laguntzaile oiek erabiliiko duten iker-burua auxe da: *Aurak euskalduntzeaz, Abeeña euskaldundu*.

Laguntzaile oiek bere lendakaria Euskaltzaindiak izendatua nai luteke. Ezetz dio onek. Azkatasuna badute ta berak aukera bezate lendakari ori, bañan

lenbizikotz Euskaltzaindiak izendatu du: Martín Lekuona jauna. Auferantzean berak aukeratu ta izendatu bezate: guziak ordea Euskaltzaindiaren babespe ta mendean begoz.

2.^a Azkue jaunak bere lan bat irakurri du. Agustín Chaotzaz, bere aldizki L'Ariel-tzaz ta Chao-k somatutako Artor ospetsua ere lan ofetan aipatzen du.

3.^a Euskaltzaindiak, eman oi dizkioten sorozpide ta laguntzai zerbaitez ere erantzunik, Izkuntza-goi-ikasbideak Bilbon eratsi nai ditu. Ikasbide abek datoñen Azaroan asiko dira iragañiko diran egun eta tokian. Ikasbide abek Juan Gorostiaga apaiz gazteak esango ditu, auxe bai-da ikasketa ta ezaguera oietan ongi saiatua. Auxe beaz izendatzen da ikastaro aben irakasle, bañan izendamen onek eztu ezertan izpetzen Euskaltzaindi bera. Orain datozen sorozpideak urituko balira, ez du Euskaltzaindiak zer ikusterik izango.

Ta beste gai batzuk bigaramonerako utzita, otoitzez amaitu da.

Bilbon Euskaltzaindiaren etxean, 1933'ko Urriaren 20'an.

Euskaltzain jaun auek bildu dira: Azkue, maipuru; Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe ta Elissalde; urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitzez asi dira.

1.^a Azkue jaunak aipatu ta beste euskaltzain jaunak abo batez baietz esanda, Euskaltzaindiak bere deduzko euskaltzain Henri Gavel jauna izendatu du.

2.^a Euskaltzaindiak irañi nai lituzke aituta dauden liburu-euskaldun zarak, batez ere eñiak sañi eskatzen dituenak. Badaki ordea *Zabalkundea* irarlanetan oso atzari dabilela ta badala ontan bai Euskaltzaindi